## ¿NOLA JAKINGO DUZU LARRIALDI KIMIKOA GERTATU DELA?

## ¿CÓMO SABRÁS QUE SE HA PRODUCIDO UNA EMERGENCIA QUÍMICA?

### Alerta abisua eta alerta amaiera

Agintariek larrialdia gertatu delako alerta emango dizute, bai megafonia bidez edo bai irrati eta telebista bidez emandako abisuen bitartez. Amaitzen denean ere, baliabide berdinak erabiliko dituzte abisatzeko.

**Gainera, alerta modu azkarragoan eman behar den tokietan sirenak jarri dira, eta horrelakoetan:**

### Alerta abisua

Sirena batek emango du alertaren berri: minutu bateko hiru seinale errepikatuko ditu bost segundoko isiluneak eginez.

1 min — Isilik 5 seg — 1 min — Isilik 5 seg — 1 min

### Alerta amaitzeko abisua

Alerta-amaiera sirena batek iragarriko du 30 segundoko seinale jarraituaren bidez.

30 seg

### Aviso de alerta y final de alerta

Porque las autoridades, a través de megafonía o de avisos transmitidos por las emisoras de radio y televisión, te alertarán de que se ha producido una emergencia. Cuando haya finalizado, te avisaran por los mismos medios.

**Además, en los lugares donde es necesario trasmitir la alerta de una forma más rápida, hay sirenas instaladas; en este caso:**

### Aviso de alerta

La alerta se anunciará por una sirena que repetirá tres señales de un minuto de duración con intervalos de cinco segundos de silencio.

1 min — Silencio 5 seg — 1 min — Silencio 5 seg — 1 min

### Aviso de Final de Alerta

El final de la alerta se anunciará con una señal continua de sirena durante 30 segundos.

30 seg



www.euskadi.net/112

aurrera doan herria — un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Atención de Emergencias

112 SOS DEIAK

# ZER EGIN BEHAR DUGU IKASTETXEETAN LARRIALDIA BADAGO?

# ¿QUÉ ES PRECISO HACER EN LOS CENTROS ESCOLARES EN CASO DE EMERGENCIA?

Erantzuteko jarrerak

Actitudes de respuesta

www.euskadi.net/112

aurrera doan herria — un país en marcha

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Atención de Emergencias

112 SOS DEIAK

## ¿ZER EGIN BEHAR DUGU KANPOKO LARRIALDIA BADAGO?

## ¿QUÉ HAY QUE HACER EN CASO DE UNA EMERGENCIA EXTERNA?

Larrialdi kimikoa gertatuz gero eta ikastetxeari eragiten badio, agintariek zentroari jakinaraziko diote dagoen arriskua, ezarritako baliabideen bidez, - megafonia, telefono deia eta, behar den tokietan, sirenen bidez-, eta horrelakoetan aurreikusitako ekintzak aginduko dituzte.

Si se produce una emergencia química y el centro escolar se ve afectado, las autoridades avisarán al centro del peligro que le afecta a través de los mecanismos establecidos –megafonía, llamada telefónica y, en las zonas donde existan, mediante sirenas- y ordenarán las acciones previstas para estos casos.

Gerta daitezkeen istripuak

Accidentes que pueden ocurrir

**Gas-ihesa.** Fuga de gas

Gas-hodeiak eragingo ditu haizearen aldeko arloak.

Las áreas que queden a favor del viento se verán afectadas por la nube de gas.

**Eztanda.** Explosión

Eztanda izan den tokian dagoen etxe aldeko leihoak apur daitezke eta zenbait elementu oso azkar aska daitezke, esaterako beira zatiak, markoaren zur-zatiak edo sarekoak.

Las ventanas del edificio que dan al lugar de la explosión pueden romperse y lanzar fragmentos de vidrio, de madera del marco, de las rejas, a gran velocidad.

**Sutea.** Incendio

Suteek hainbat arrisku dute: zabaltzea (inguruko aldeetara zabal daitezke), ke toxikoa (batzuetan, arriskutsua), bero itogarria eta eztanda egiteko aukera gai jakin batzuetara helduz gero.

## ¿AGINTARIEK ZER EGITEA ESKA DIEZAGUKETE?

## ¿QUÉ PUEDEN PEDIRNOS QUE HAGAMOS LAS AUTORIDADES?

Konfinamedua, gas-ihesa edo sutea egoteagatik. Konfinamedua, eztanda egoteko arriskuagatik.

Confinamiento, por fuga de gas o incendio. Confinamiento, por posible explosión.

**Konfinamendua.** Lehenengo ekintzak.

**Confinamiento.** Las primeras acciones

**1. Sartu eskolan**

Irakasleak, ikasleak eta irakasle ez diren langileak eta, larrialdia dagoela, eskola-esparruan egon daitezkeen beste batzuk ikastetxe barruan seguruago egongo dira, ezbeharraren eraginaren kontra babestuago baitaude. Ikastetxeak, planifikatu bezala, adieraziko du zein lokalak duen babes hobea ezbeharraren arabera.

**1. Entrad en la escuela**

Los profesores, los alumnos y todo el personal no docente y otros que se puedan encontrar en el recinto escolar en el momento de la emergencia, estarán más seguros dentro del edificio, donde hay más protección contra los efectos de un accidente. El centro escolar tendrá planificado cuales son los locales que pueden ofrecer la mejor protección según el tipo de accidente.

**2. Giltzaperatu**

Larrialdi kimikoei buruzko hainbat ikerketek frogatu dutenez, nabarmena da gas toxikoaren hodeietatik eta eztandetatik babesteko maila etxe barruan handitzen dela, baita jarraibide hauek hartuz ere:

**2. Encerraos**

Las diversas investigaciones sobre emergencias químicas han demostrado que se aumenta considerablemente el grado de protección contra las nubes de gas tóxico y contra las explosiones quedándose dentro de los edificios y siguiendo las instrucciones siguientes:

Konfinamedua, gas-ihesa edo sutea egoteagatik

Confinamiento por nube de gas o incendio

Itxi ateak eta leihoak eta ez utzi airea sartzen kanpoko irekiduretatik. Baliagarria izan daiteke eskura izatea gela bakoitzeko zinta autoitsaskorreko 40 metro.

Cerrad las puertas y las ventanas e impedid la entrada de aire por las aperturas al exterior. Puede ser útil tener a mano 40 metros de cinta autoadhesiva por clase.

Gelditu aireztapena, berogailua eta kanpotik airea hartzen duten bestelako sistemak. Aurretik erabakita egongo da zeinek egingo duen.

Parad la ventilación, la calefacción y otros sistemas que hagan entrar aire del exterior. Debe estar decidido quien lo hará.

Agintariek abisatuko zaituztete hodei toxikoa edo ke toxikoa pasatutakoan, kanpora atera zaitezten eta lokala airezta dezazuen, gera daitezkeen gas edo ke arrastoak kentzeko asmoz.

Las autoridades os avisarán cuando la nube tóxica haya pasado, para que salgáis fuera y ventiléis el local para eliminar los rastros de gas que puedan quedar.

Konfinamendua eztanda egoteagatik

Confinamiento por una explosión

Eztanda egiteko arriskua badago, beharrezkoa da jaurtitako elementuez babestea. Sartu ikastetxe barruan edo, sartzeko astirik ez baduzue, babestu berezko ezponden atzean. Barruan sartzen bazarete, zoazte eztanda izango den tokiaren kontrako aldera eta ez zaitezte jarri leihoen ondoan.

Si hay riesgo de explosión, es preciso protegerse de los elementos proyectados. Confinaos dentro de los centros escolares o protegeos detrás de taludes naturales si no tenéis tiempo de entrar. Si os confináis, id a la parte opuesta al lugar donde se espera la explosión y evitad poneos cerca de las ventanas.

Beirak babestu zinta isolatzailearekin gurutze bat eginez.

Proteged los vidrios haciendo una cruz con cinta aislante.

Jaitsi pertsianak eta itxi gortinak.

Bajad las persianas y corred las cortinas.

**3. Entzun irratia eta telefonoaren zain egon**

Larrialdia egonez gero, agintariek zuzenean abisatuko zaituztete; hala ere, jarraibideak irrati publikoen bidez emango dira aldizka. Abisua hasten denetik, entzun irratia eta egon telefonoaren zain.

**3. Escuchad la radio y estad pendientes del teléfono**

Las autoridades os avisarán directamente en caso de emergencia, pero regularmente las instrucciones se darán a través de las emisoras públicas de radio. Desde el inicio del aviso, escuchad la radio y estad pendientes del teléfono.

**4. Egiaztatu bertaratze zerrenda**

Ziurtatu ikasle guztiak egun horretan zenbatu direla eta egiaztatu bertaratze zerrenda. Ikasleren bat agertzen ez bada, deitu SOS DEIAK-eko 112ra.

**4. Comprobad la lista de asistencia**

Aseguraos que todos los alumnos hayan sido contados ese día y comprobad la lista de asistencia. Si hay algún alumno que no aparece, avisad al 112 SOS DEIAK.

**5. Itxaron agintarien jarraibideak**

Agintariek abisatuko zaituztete arriskua pasatutakoan eta adieraziko dizuete etxea aireztatzea komeni den.

**5. Esperad instrucciones de las autoridades**

Las autoridades os avisarán cuando haya pasado el peligro y os dirán si conviene ventilar el edificio.

# IRAKASLE EZ DIREN LANGILEENTZAT ETA BISITARIENTZAT, JATORRI KIMIKOA DUEN KANPOKO LARRIALDIA BADAGO

# PARA USO DEL PERSONAL NO DOCENTE Y VISITANTE. EN CASO DE EMERGENCIA EXTERNA DE ORIGEN QUIMICO

Larrialdi kimikoa badago, agintariek adieraziz gero kanpoko larrialdia dagoela edota horren susmoa baduzue, egon lasai eta jarraitu gomendio hauek:

En caso de emergencia  química, si las autoridades os avisan de que hay una emergencia externa o si tenéis la sospecha de que existe una, mantened la calma y seguid estos consejos:

1. Sartu ikastetxeetan
   Entrad en los centros escolares

2. Irakasle ez diren langileak:
   Bete agindutako eginkizunak
   Personal no docente:
   ejecutad las tareas que tenéis encomendadas

3. Giltzaperatu
   Encerraos

4. Entzun irratia eta egon telefonoaren zain
   Escuchad la radio y estad pendientes del teléfono

5. Itxaron agintarien jarraibideak
   Esperad instrucciones de las autoridades

www.euskadi.net/112

aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Atención de Emergencias
LARRIALDIAK EMERGENCIAS
112 SOS DEIAK

# INFORMAZIO GEHIAGO:
# MÁS INFORMACIÓN:

### Konfinamendua
Beharrezkoa bada barruan sartzea, egon lasai eta ez atera inola ere. Agintariek adieraziko dizuete noiz den segurua irtetea.

### Confinamiento
Si se requiere el confinamiento, mantened la calma y no salgáis fuera por ningún motivo. Las autoridades ya os dirán cuando es seguro hacerlo.

### Gogoratze aldera
Laguntza behar izanez gero, deitu Sos Deiak-eko 112ra.

### Recordatorio
En caso de ayuda llama al 112 Sos Deiak.

((112))
SOS DEIAK

# IRAKASLEENTZAT, JATORRI KIMIKOA DUEN KANPOKO LARRIALDIA BADAGO

# PARA USO DE LOS PROFESORES EN CASO DE EMERGENCIA EXTERNA DE ORIGEN QUIMICO

Larrialdi kimikoa dela eta, agintariek adieraziz gero kanpoko larrialdia dagoela edota horren susmoa baduzue, egon lasai eta jarraitu gomendio hauek:
En caso de emergencia  química, si las autoridades os avisan de que hay una emergencia externa o si tenéis la sospecha de que existe una, mantened la calma y seguid estos consejos:

1. Sartu eta ikasleak sartarazi ikastetxeetan
   Entrad y haced entrar a los alumnos en los centros escolares
2. Giltzaperatu
   Encerraos
3. Entzun irratia eta egon telefonoaren zain
   Escuchad la radio y estad pendientes del teléfono
4. Egiaztatu bertaratze zerrenda
   Comprobad la lista de asistencia
5. Itxaron agintarien jarraibideak
   Esperad instrucciones de las autoridades

www.euskadi.net/112

aurrera doan herria
un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Atención de Emergencias
LARRIALDIAK EMERGENCIAS
112 SOS DEIAK

# INFORMAZIO GEHIAGO:
# MÁS INFORMACIÓN:

**Konfinamendua**
Ikastetxean sartu behar baduzue, egon lasai eta ez atera inola ere. Agintariek adieraziko dizuete noiz den segurua ateratzea.

**Confinamiento**
Si se requiere el confinamiento, mantened la calma y no salgáis fuera por ningún motivo. Las autoridades ya os dirán cuando es seguro hacerlo.

**Gurasoak**
Gurasoek dagoeneko jaso dute seme-alaben bila ikastetxeetara ez joateko jarraibidea, hala ere, bertaratuz gero, gomendatu ikastetxean bertan beraiekin geratzeko, larrialdia pasatu arte.

**Padres**
Los padres ya han recibido instrucciones de no acudir a los centros escolares a buscar a sus hijos pero aún así si se presentan, aconsejadles que se queden con ellos en el centro hasta que la emergencia haya pasado.

**Gogoratze aldera**
Laguntza behar izanez gero, deitu Sos Deiak-eko 112ra.

**Recordatorio**
En caso de ayuda llama al 112 Sos Deiak.

((112))
SOS DEIAK

# IKASLEENTZAT, JATORRI KIMIKOA DUEN KANPOKO LARRIALDIA BADAGO

# PARA USO DE LOS ALUMNOS EN CASO DE EMERGENCIA EXTERNA DE ORIGEN QUIMICO

1. Sartu ikastetxeetan
   Entrad en los centros escolares

2. Giltzaperatu zuen gelan
   Encerraos en vuestra clase

3. Egon lasai
   Mantened la calma

4. Jarraitu irakasleen jarraibideak
   Seguid las instrucciones de los profesores

www.euskadi.net/112

aurrera doan herria — un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailburuordetza
Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Atención de Emergencias
LARRIALDIAK EMERGENCIAS
112 SOS DEIAK

# INFORMAZIO GEHIAGO:
# MÁS INFORMACIÓN:

### Konfinamendua
Beharrezkoa bada barruan sartzea, egon lasai eta ez atera inola ere. Agintariek adieraziko dizuete noiz den segurua ateratzea.

### Confinamiento
Si se requiere el confinamiento, mantened la calma y no salgáis fuera por ningún motivo. Las autoridades ya os dirán cuando es seguro hacerlo.

### Gogoratze aldera
Laguntza behar izanez gero, deitu Sos Deiak-eko 112ra.

### Recordatorio
En caso de ayuda llama al 112 Sos Deiak.

((112))
SOS DEIAK